



TXOSTEN METEOROLOGIKOA – 2021KO URRIA

Urria, orokorrean, oso lehorra izan zen, tenperaturari dagokionez, berriz, ohikoa, zenbait lekutan hotza, Gasteizen esate baterako. Muturreko egoerei dagokienez, lasaia izan zen, 4 abisu baino ez baitziren igorri; iazkoarekin antzekotasunik ez, orduan oso nahasia izan zen. Aipagarriena intsolazioa izan zen, ohikoa dena baino askoz altuagoa; eguzki orduen kopurua ohikoa dena baino % 40 inguru handiagoa izan zen.

Prezipitazioa

Urria oso lehorra izan zen, Arabako hegoaldean eta Gipuzkoako ipar-ekialdean lehorra. 1981-2010 periodoarekin alderatuz, ohikoa denaren erdia baino gutxiago pilatu zen ia lurralde osoan. Ipar-ekialdean egin zuen euri gehien eta hango estazio batean baino ez ziren pilatu 100 mm baino gehiago (Eskas 132 mm, Añarbe 95.5 mm, Miramon 94.8 mm, Ereñozu 84.6 mm, Behobia 82.5 mm). Hortik kanpo, Bizkaiko kostaldeko eta barnealdeko mendi inguruetako zenbait lekutan egin zuen euri gehien (Matxitxako 65.4 mm, Urkiola 65.9 mm, Kapildui 59.1 mm, Iturrieta 57.9 mm). Euri gutxien isurialdeen arteko banalerroan egin zuen, batez ere banalerroaren hegoaldean, Ebro ondoko eskualdean eta Enkarterrietan (Saratxo 21.1 mm, Moreda 23.6 mm, Abetxuko 24.5 mm, Sarria 24.9 mm, Tobillas 25.1 mm, Balmaseda 25.1 mm). EAE osoan, mende honetako bostgarren urririk lehorrena izan zen.

Euri-egunen (≥ 1 mm) kopurua baxua izan zen. Hiriburuz hiriburu, Donostian 7 euri-egun izan ziren, Bilbon eta Gasteizen 5, horietatik gehienak hilabetearen hasieran eta amaieran.

Egun bakar batean izan zen euria ugaria (≥ 30 mm), hilaren 3an, alegia, Gipuzkoako kostaldean (Miramon 40.8 mm, Eskas 39.4 mm, Aizarnazabal 35.3 mm, Behobia 34.9 mm) eta Bizkaiko kostaldeko zenbait lekutan (Matxitxako 31.1 mm).

Hilaren 29tik 31ra giroa euritsua izan zen. Hilaren 29an Mediterraneo isurialdean egin zuen euria, 31an kantauri isurialdean, baina egun horietan egindako euria ez zen nahikoa izan hilabeteko kalifikazioa aldatzeko.

Taula 1: Azken urteetan urriari pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

| | 2021 | 2020 | 2019 | 2018 | 2017 | 2016 | 2015 | 2014 | 2013 | 2012 |
|----------|------|-------|-------|-------|------|------|-------|------|-------|-------|
| Deusto | 33.8 | 165.3 | 91.6 | 142.0 | 15.4 | 10.8 | 123.0 | 22.0 | 34.1 | 92.9 |
| Lasarte | 71.2 | 211.9 | 123.4 | 167.6 | 61.8 | 40.6 | 68.3 | 29.1 | 107.9 | 240.5 |
| Arrasate | 35.6 | 164.3 | 99.6 | 162.4 | 38.6 | 18.6 | 66.8 | 18.3 | 33.1 | 158.9 |
| Abetxuko | 24.5 | 115.6 | 54.0 | 88.6 | 28.0 | 16.2 | 35.0 | 17.2 | 26.9 | 87.3 |
| Párganos | 33.8 | 37.2 | 25.3 | 40.9 | 20.1 | 9.9 | 60.7 | 33.3 | 34.2 | 94.1 |



Temperatura

Urriko batez besteko temperatura ohikoa izan zen, Arabako Lautadan hotza. Kostaldeko batez besteko temperatura 16 °C ingurukoa izan zen, Arabako Lautadakoa 12 °C-tik gertu izan zen. 1980-2010 periodo normalarekin alderatuz, EAE osoan -0.2 °C anomalia negatiboa izan zen. Aipatu behar da anomalia hori ez zela homogeneoa izan, Mediterraneo isurialdean handiagoa izan zen, kostaldean berriz positiboa, ohikoa dena baino hamarren bat altuagoa, alegia. Mende honetako zazpigarren urririk hotzena izan zen, seriearen buruan 2020ko urria delarik.

Temperaturaren joerari so eginez, lehenengo hamabostaldian egun hotzak beroei gailendu zitzaizkien, nabarmen gainera. Egun bero gehienak hilaren 17tik 21era eta 29tik 31ra bildu ziren, gutxi gorabehera.

Hainbat egunetan goizaldean hotz egin zuen. Eguerdian giro eguzkitsuari esker temperatura igo egiten zen. Oszilazio termikoa, beraz, handia izan zen egun horietan.

Temperatura maximorik altuenak hilaren 19an eta 20an neurtu ziren, fluxu iberikoen eta aire-masa subtropikal baten laguntzaz. Kantauri isurialdean temperatura maximoak 30 °C ingurukoak izan ziren, batez ere kostaldean (hilaren 19an Oleta 30.6 °C, Galindo 29.7 °C, Arteaga 29.5 °C, Higer 29.2 °C; hilaren 20an Oleta 30.4 °C, Sodupe-Cadagua 30.3 °C, Mungia 29.6 °C, Mutriku 28.7 °C el día 20). Horrez gain, hego-haizeak temperatura minimoak ere 20 °C-tik gora mantendu zituen kostaldean (Mutriku 23.8 °C, Galindo 22.3 °C, Almike 21.6 °C, Higer 21.4 °C, Zarautz 21 °C, Matxitxako 20.2 °C), baita barnealdeko gunee altuetan ere (hilaren 19an, Arboleda 21 °C, Venta Alta 20.7 °C).

Arabako Errioxaren kasuan, temperatura maximoak lehenago neurtu ziren, hilaren 1ean (Moreda 24.2 °C) eta 7an (Páganos 24.2 °C), hain zuzen ere.

Hilaren 9an denboraldiko lehen izotza egin zuen, Arabako Mendialdeko bailaretan eta kubetetan. Zerua oskarbi edo hodei gutxirekin egon zen eta inbertsio termiko handia sortu zen horregatik. Egun horretan han-hemenka egin zuen izotz txikia (Pagoeta -0.4 °C, Iturrieta -0.2 °C). Hilaren 14an izotza Arabako Mendialdetik kanpo ere egin zuen (Pagoeta -2.1 °C, Albaina -1.7 °C, Salvatierra -0.9 °C, Tobillas -0.5 °C, Altube -0.3 °C) eta 24an Mediterraneo isurialdeko leku gehiagotan egin zuen, haien artean lehen aldiz Gasteizen (Pagoeta -3.7 °C, Navarrete -3.4 °C, Espejo -3.2 °C, Trebiño -2.8 °C, Abetxuko -1 °C). Kantauri isurialdean ez zuen izotzik egin.

Intsolazioa ohikoa dena baino askoz altuagoa izan zen, % 40 altuagoa, alegia. Hiriburuetakoko eguzki-orduen kopuruari dagokionez, Bilbon 185 ordu inguru izan ziren, Donostian 193 eta Gasteizen 191.

**Taula 2: Urrian, azken urteetan, neurtutako batez besteko temperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

| | 2021 | 2020 | 2019 | 2018 | 2017 | 2016 | 2015 | 2014 | 2013 | 2012 |
|-----------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|
| Deusto | 16.4 | 15.1 | 17.5 | 15.5 | 17.0 | 16.7 | 17.4 | 19.5 | 18.8 | 17.0 |
| Lasarte | 15.1 | 14.1 | 16.3 | 14.3 | 16.0 | 14.8 | 15.4 | 18.0 | 17.2 | 15.5 |
| Arrasate | 13.7 | 12.8 | 14.8 | 13.0 | 14.9 | 13.6 | 13.7 | 16.6 | 15.7 | 13.8 |
| Abetxuko | 11.6 | 11.0 | 13.5 | 11.8 | 13.5 | 12.4 | 12.6 | 15.1 | 14.5 | 12.9 |
| Párganos | 13.3 | 12.1 | 15.2 | 12.3 | 15.2 | 13.7 | 13.2 | 16.1 | 14.6 | 13.1 |

Haizea

Urrian bigarren eta hirugarren koadranteke haizea izan zen nagusi. Zenbait egunetan haizea aldakor ibili zen, arratsaldetan lehenengo koadrantekeoa. Bukatzeko, noizbehinka fronteak lurraldetik igaro eta mendebaldeko edo ipar-mendebaldeko haizea ibili zen.

Lehenengo bost egunetan hego-haizea indartsua izan zen eta haize-bolada oso gogorak ia egunero neurtu ziren, aipagarrienak hilaren 2an, gauean, eta 3an, goizaldean, orduan ipar-mendebaldeko haizeguneetan haize-bolada bortitzak neurtu ziren (Cerroja 133 km/h, hilabete osoan neurtutako boladarik bortitzena; Matxixako 123.5 km/h, Orduña 116.4 km/h, La Garbea 113.9 km/h). Haizeguneak ez diren tokietan ere haize-bolada oso gogorak neurtu ziren (hilaren 2an azken orduetan, Saratxo 85.7 km/h; hilaren 3an, goizaldean, Mallabia 91 km/h eta Igorre 89.2 km/h). Gertaera hau hilabete osoan haizeagatik izandako muturreko egoera bakarra izan zen. Hilaren 5ean ere zenbait lekutan haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten (Matxixako 100.5 km/h).

Hilaren 5ean, egunaren amaieran, haizeak indarra galdu zuen. Hilaren 6tik 13ra haizea ahul eta aldakor ibili zen. Arratsaldetan ipar-osagaitik finkatzen zen haizea eta indartu egiten zen, bolada gogor batzuekin barnealdean, batez ere Araban, bai haizeguneetan bai haizeguneak ez diren tokietan (40-45 km/h ingurukoak).

Hilaren 14tik aurrera hego-haizea izan zen nagusi berriro ere. Hasieran haizea ez zen indartsua izan eta arratsalde batzuetan brisa ibili zen. Hilaren 18an, ordea, haizea indartu egin zen nabarmen eta hilaren 19an hegoaldeko haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten (Matxixako 104.1 km/h). Hilaren 20an ere haize-boladak oso gogorak izan ziren (Matxixako 97 km/h, Cerroja 94.2 km/h), baina eguna aurrera joan ahala haizea mendebal/ipar-mendebaldera aldatu zen eta indarra galdu zuen.

Egun batzuetan iparraldeko haizea ibili ondoren, haizea aldakor geratu zen eta hilaren 23an ez zen haize-bolada gogorrik neurtu.

Hilabetearen azken astean hego-haizea ibili zen, baina ez zen indartsua izan eta ia arratsaldero brisa ibili zen kosta partean. Hilaren 29an, ordea, hego-mendebaldeko haizea indartu egin zen eta Punta Galean 121.4 km/h-ko bolada neurtu zen, Matxixakon 103-6 km/h-koa. Azken bi egunetan hego-haizea ibili zen



hasieran eta eguerdi aldera mendebal/ipar-mendebaldera aldatu zen, bolada oso gogorrekin kostaldean.

Analisia

Urriaren 1etik 2ra

Hilaren hasieran eguraldia egonkorra izan zen. Kantauri itsasoan zirkulazio zonalak izan zen nagusi maila guztietan; Britainiar uharteen iparraldean depresio hotz indartsu bat kokatu zen. Hilaren 2an hego-haizea indartu egin zen nabarmen eta haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten, batez ere lurraldearen mendebaldean. Temperatura altua izan zen eta maximoak Kantauri isurialdean 28 °C ingurukoak izan ziren.

Urriaren 3tik 5era

Hilaren 3tik aurrera zirkulazioa izurtu egin zen eta Britainiar uharteen iparraldean kokatutako depresio hotzaren eraginpean geratu zen lurraldean. Hilaren 3an lurrazalean fronte hotz batek Penintsula osoa zeharkatu zuen, mendebaldetik ekialdera mugituz. Goizaldean hego-mendebaldeko haizea gogor ibili zen eta iparraldeko zenbait lekutan temperatura 26-27 °C ingurukoa izan zen. Fronte hotzarekin batera, eguraldia goitik behera aldatu zen. Haizea ipar-mendebaldera aldatu zen, euria ugari egin zuen lurralde osoan eta arratsaldean temperatura 15 °C ingurura jaitsi zen. Hilaren 4an eguraldiak egonkortzera egin zuen, zerua hodei gutxirekin geratu zen eta temperatura ohikoagoa izan zen. Hilaren 5ean ipar-mendebaldeko haizeak bultzatuta, beste fronte hotz bat pasa zen lurraldetik eta euritara jo zuen, batez ere iparraldean.

Urriaren 6tik 11ra

Hilaren 6an eguraldia egonkortu egin zen nabarmen. 500 hPa-eko mailan Europa iparraldean eta erdialdean omega itxurako blokeo handia sortu zen, Mediterraneoaren erdialdean depresio bat kokatzen zen bitartean. Depresio hori ekialdera mugitu zen gero. Depresio horren eraginpean, euria barra-barra egin zuen Italiako ipar-mendebaldean eta 24 orduan 700 mm baino gehiago pilatu ziren, errekor guztiak hautsiz. Lurrazalean, hilaren 7an eta 8an Eskandinaviako ipar-ekialdean kokatutako antizikloia izan zen nagusi. Hilaren 10etik aurrera Britainiar uharteetan beste presio altuen gune bat sortu zen eta Europa iparraldean zubi antizikloniko handi bat zabaldu zen.

Urriaren 12tik 27ra

Hilaren 12an zubi antizikloniko hori desegin zen eta antizikloi britainiarraren eraginpean geratu zen lurraldea, omega itxurako blokeoaren isla, blokeoa aurreko egunetan baino ahulagoa izan arren. Eguraldia eguzkitsua izan zen, temperatura ohikoa dena baino baxuagoa izan zen ordea, zenbait egunetan izan ezik, fluxu kontinental lehor eta hotza nagusi izan zelako. 850 hPa-eko mailan airearen temperatura 8-10 °C ingurukoa izan zen, hilaren 13an 6 °C ingurukoa. Hilaren 14an Mediterraneo isurialdean izotza egin zuen lehenengo aldiz. Presio altuak ekialdera mugitu ziren gero eta Afrikako iparraldeko aire-masa beroa



gurean zabaldu zen horri esker. 850 hPa-eko mailako temperatura 16 °C ingurura igo zen eta hirugarren koadrante ko haizeak lagunduta hilaren 19an eta 20an temperatura maximoak 30 °C-ren bueltan izan ziren. Hilaren 22an zirkulazio orokorretik askatutako aire hotzezko poltsa batek Mediterraneo itsasoan eragin handia izan zuen eta Sizilian uholdeak izan ziren, baina ez zuen gurean eragin handirik izan eta prezipitazioa txikia izan zen orokorrean. Gero presio altuak gailendu ziren berriro, Europa osoan zabaldua, eta depresioek latitude altuetatik mugitu behar izan zuten.

Urriaren 28tik 31ra

Azken egunetan zurrumbilo polarra latitude baxuagotan kokatu zen eta hezetasun handiko depresio subtropikala Iberiar Penintsulan agertu eta euri ugari ekarri zuten ia denera. Hego-mendebaldeko haize hezea ibili zen eta hilabetearen erdialdean nagusi izan zen eguraldi lehor eta antiziklonikoa amaitu egin zen. Kantauri itsasoan udazken giroa gailendu zen, hego-haizearekin eta fronteei loturiko hodeitzarekin.






Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2021eko urriko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

| Estazioa | Batez besteko Temp. °C | Temp. max. °C | Temp. max.abs. °C | Temp. min °C | Temp. min.abs. °C | Izotz- egunak | Pilatutako euria l/m ² | Egun batean pilatutako euri max l/m ² | Euri- egunak |
|----------|---------------------------------|---------------------|-------------------------|--------------------|-------------------------|------------------|---|--|-----------------|
| Deusto | 16.4 | 21.5 | 28.8 | 12.5 | 8.1 | 0 | 33.8 | 16.5 | 5 |
| Lasarte | 15.1 | 20.4 | 27.6 | 10.9 | 6.9 | 0 | 71.2 | 28.4 | 8 |
| Arrasate | 13.7 | 20.2 | 27.6 | 8.7 | 3.0 | 0 | 35.6 | 17.0 | 5 |
| Abetxuko | 11.6 | 18.8 | 24.9 | 5.4 | -1.0 | 1 | 24.5 | 13.1 | 5 |
| Párganos | 13.3 | 19.7 | 24.2 | 7.8 | 3.7 | 0 | 33.8 | 9.3 | 4 |



Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak



Pilatutako prezipitazioa

 Temperatura minimoa


 Batez besteko temperatura

 Temperatura maximoa




Prezpitazioaren jokaera


Behatutako prezpitazioa
Precipitación observada




Prezpitazio normala
Precipitación normal



Prezpitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normal



Prezpitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normal





Muturreko balioak

Urriko tenperatura minimorik altuena

| Izena | Aurtengo errekorra (°C) 2021eko urria | Data | Aurreko errekorra (°C) XXI mendeko urria | Data | Estazioa jarritako urtea |
|--------|---|------------|--|------------|--------------------------------|
| Mungia | 21.8 | 2021/10/19 | 21.5 | 2006/10/25 | 1993 |



Muturreko egoerak

Urriari 4 abisu hori igorri ziren, ondoren azaltzen diren kausen arabera banatuta: 2 haizeagatik haizeguneetan, 1 kostaldean inpaktuagatik eta 1 baso-sute arriskuagatik.

- Hilaren 2an Britaniar uharteren iparraldean presio baxuen sistema indartsu bat kokatu zen. Depresio txiki bat Bizkaiko golkoaren iparraldetik igaro zen eta azken orduetan Ipar itsasoan kokatu zen. Hilaren 2an depresio txikiago bat sortu zen depresio horren barnean, Britainiako hegoaldean. Hilaren 2an, goizaldean, haizea hegoaldeko finkatu zen eta goiza aurrera joan ahala indartuz joan zen, bolada oso gogorrekin, batez ere ipar-mendebaldeko haizeguneetan. Gauean ibili zen haizea gogorrago, bolada bortitz batzuekin ipar-mendebaldeko haizegune horietan. Hurrengo goizaldean ere haizea oso indartsua izan zen, baina goizean goiz haizea mendebaldera aldatu zen eta barnealdean indarra galdu egin zuen, ez ordea kostaldean; han bolada oso gogor batzuk izan ziren oraindik.

| Estazioa | Haize-bolada, hilak 2 (km/h) | Ordua UTC |
|-------------|------------------------------|-----------|
| Cerroja | 133 | 22:20 |
| Orduña | 116.4 | 22:40 |
| La Garbea | 113.9 | 22:10 |
| Arboleda | 105.1 | 21:50 |
| Oiz | 104.1 | 22:00 |
| Punta Galea | 101.6 | 19:20 |
| Matxitxako | 100.5 | 20:30 |
| Saratxo | 85.7 | 19:40 |

| Estazioa | Haize-bolada, hilak 3 (km/h) | Ordua UTC |
|------------|------------------------------|-----------|
| Cerroja | 129.8 | 01:10 |
| Matxitxako | 123.5 | 00:20 |
| Orduña | 118.5 | 00:10 |
| Oiz | 113.6 | 01:20 |
| Mallabia | 91 | 01:00 |
| Igorre | 89.2 | 01:10 |

Larunbata, hilak 2: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 21etatik 24etara ordu lokala. Igandea, hilak 3: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 00etatik 06etara ordu lokala

- Hilaren 8an Bizkaiko golkoaren mendebaldean kokatutako depresio baten eraginpean olatuak handitu ziren Kantauri itsasoan. Egunaren lehenengo partean Donostiako buian olatuen altuera adierazgarria igo egin zen eta



bigarren partean 2.5 eta 3 m artekoa izan zen. 18etan UTC, arratsaldeko itsasgoraren inguruan, olatuen altuera 3.5 m ingurukoa izan zen, 15-16 segundoko periodoarekin. Itsasgoran estimatutako gainezka egiteko indizeak $I = 6.1$ m eta $I_{max} = 6.5$ m izan ziren. Hilaren 9an, goizaldean, olatuen altuera adierazgarria jaitsi egin zen eta olatuek ez zuten gaintitu itsasertza.

Ostirala, hilak 8: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 18etatik 20etara ordu lokala.

- Hilaren 19an hego-haizea indartsua izan zen, Matxitxakon 104.1 km/h-ko haize-bolada batekin. Hego-haize hori ibiltzeaz gain, aire berozko mihi bat Penintsulan zabaldu zen, goi-geruzako gailur batekin batera. Giroak udako itxura hartu zuen, beraz, eta kostaldeko temperatura maximoak 30 °C ingurukoak izan ziren, batez ere Bizkaian (Oleta, 30.6 °C; Berriatua, 29.9 °C; Galindo, 29.7 °C; Mungia, 29.6 °C). Hego-haize indartsuagatik, temperatura altuagatik eta hezetasun erlatibo baxuagatik, Kantauri isurialdean baso-sute arriskua altua izan zen eta Arboledan, Sestaon, Mungian eta Kalamua mendian, Markinan, suteak izan ziren.

Asteartea, hilak 19: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik Kantauri isurialdean 00etatik 24etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko temperatura: hileko batez besteko temperatura.

- *Temperatura maximoa:* eguneko temperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Temperatura maximo absolutua:* hileko temperaturarik altuena.
- *Temperatura minimoa:* eguneko temperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Temperatura minimo absolutua:* hileko temperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, temperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen duen egun kopurua.

Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* temperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. temperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. temperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. temperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* temperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologia gidan aurki daiteke: <http://meteodat.euskadi.net/castellano/terminologia.asp>.

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeko daude.